**Esp. kod./Cód. exp.:** 2020OORD0001
**Gaia/Asunto:** 2021 EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA (EHORZKETAK)
**Titularra/Titular:** OGASUN, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDU BATZORDEA

# UDAL HILERRI ZERBITZUARENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

## ORDENANZA REGULADORA DE LA TASA DE CEMENTERIO MUNICIPAL

### I. XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua**. Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, udal hilerriaren tasa ezartzen eta eskatzen du, ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

**2. artikulua**. Ordenantza udalerri osoan ezarriko da.

### II. ZERGA GAIA

**3. artikulua**. Ordenantza honetako eranskinean jasotako tarifan adierazitako zerbitzuetarikoren bat jasotzea zerga gai bihurtuko da. Horrek berekin ekarriko du ordaindu beharra.

### III. SUBJEKTU PASIBO

**4. artikulua**. Baimena edo zerbitzua eskatzen dutenak dira zergapeko subjektu pasiboak, eta, dagokionean, emandako baimenaren titularrak.

**5. artikulua**. Erantzuleak.
Subjektu pasiboaren zerga betebeharrengatik era solidarioan erantzungo dute Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 38. eta 39. artikuluetan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoek.

**6. artikulua.** Salbuespenak.
Honako zerbitzuak geratuko dira salbuetsita:

a) Ongintza etxeetan bizi diren pertsonen ehorzketak, baldin eta gorpua etxe horiek eramaten badute hilerrira, eta hildakoen senideek hiletarik ordaintzen ez badute.

b) Arras pobreen gorpuen ehorzketak.

c) Agintari judizialen aginduz hilobi komunean egiten diren ehorzketak.

### IV. ZERGA OINARRIA

**7. artikulua**. Zerbitzua egiten duen unitate bakoitza izango da zerga oinarria, tarifak dioen neurrian.

### I.DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1**. Este Ayuntamiento, de acuerdo con la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Álava, establece y exige la tasa de cementerio municipal, con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen las tarifas aplicables.

**Artículo 2**. La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

### II. HECHO IMPONIBLE

**Artículo 3**. Constituye el hecho imponible de esa tasa la prestación de alguno de los servicios enumerados en la tarifa recogida en el Anexo de la presente Ordenanza, lo cual determina la obligación de contribuir.

### III. SUJETO PASIVO

**Artículo 4**. Son sujetos pasivos contribuyentes los solicitantes de la concesión de la autorización o de la prestación del servicio y, en su caso, los titulares de la autorización concedida.

**Artículo 5**. Responsables.
Responderán solidariamente de las obligaciones tributarias del sujeto pasivo las personas físicas o jurídicas a que se refieren los artículos 38 y 39 de la Norma Foral General Tributaria de Álava.

**Artículo 6**. Exenciones subjetivas.
Estarán exentos los servicios que se presten con ocasión de:

a) Los enterramientos de los asilados procedentes de la Beneficencia, siempre que la conducción se verifique por cuenta de los establecimientos mencionados y sin ninguna pompa fúnebre que sea costeada por la familia de los fallecidos.
b) Los enterramientos de cadáveres de pobres de solemnidad.
c) Las inhumaciones que ordene la Autoridad Judicial y que se efectúen en la fosa común.

### IV. BASE IMPONIBLE

**Artículo 7**. Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice el servicio, en los términos de la tarifa.

V. KUOTA

**8. artikulua**.- Eranskinean jasotako tarifa aplikatuz zehaztuko da zergaren kuota.

VI. SORTZAPENA

**9. artikulua**.- Zergapeko zerbitzuak ematen hasten denean sortzen da tasa eta zerga ordaindu beharra eta, horren ondorioetarako, aipatutako zerbitzuak eskatzen direnean hasten direla ulertuko da.

VII. KUDEAKETA

**10. artikulua**. Deklarazioa, likidazioa eta ordainketa egitea.

1. Subjektu pasiboek behar dituzten zerbitzuak eskatuko dituzte.
2. Zerbitzu bakoitza banan-banan eta autonomoki ordainduko da, eta, behin zerbitzua eskainita, jakinarazi egingo da, Udalaren Diru-kutxan zuzenean sartzeko. Diru-sarrera hori Dirubilketako Arautegi Orokorrean adierazitako moduan eta epeetan egingo da.

VIII. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

**11. artikulua**.- Zerga arau hausteen kalifikazioari buruzko guztian, bai eta kasu bakoitzean arau hauste horiei dagozkien zigorren kalifikazioan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

**ORDENANTZAREN ARAUAK**

1. KAPITULUA
Xedapen orokorrak

**12. artikulua**.
Udal hilerria, Aramaioko Ibarran dagoena, zerbitzu publikoko ondasuna da eta udalarena da. Beraz, administrazioaren menpe dago erabat, eta udal korporazioak zaindu eta zuzenduko du arautegi honek adierazten duen eran. Hala ere, agintari judizialek eta osasun arlokoek horretan beste eskumen batzuk dituzte.

Era berean, auzoetako hilerrietan lurperatzeko udal teknikariek hilerri bakoitzaren berezitasunak kontuan izanik ematen dituzten jarraibideak errespetatuko dira, agintari judizialen eta, kasuan kasu, osasun agintariek arlo horretan dituzten ahalmenak alde batera utzita.

**13. artikulua.**

V. CUOTA

**Artículo 8**.- La cuota tributaria se determinará por la aplicación de la tarifa recogida en el ANEXO.

VI. DEVENGO

**Artículo 9**.- Se devenga la Tasa y nace la obligación de contribuir cuando se inicie la prestación de los servicios sujetos a gravamen, entendiéndose, a estos efectos, que dicha iniciación se produce con la solicitud de aquéllos.

VII. GESTION

**Artículo 10**. Declaración, liquidación e ingreso.

1. Los sujetos pasivos solicitarán la prestación de los servicios de que se trate.
2. Cada servicio será objeto de liquidación individual y autónoma, que será notificada, una vez que haya sido prestado dicho servicio, para su ingreso directo en las Arcas Municipales en la forma y plazos señalados en el Reglamento General de Recaudación.

VIII. INFRACCIONES Y SANCIONES

**Artículo 11**.- En todo lo relativo a la calificación de infracciones tributarias, así como de las sanciones que a las mismas correspondan en cada caso, se estará a lo dispuesto en los artículos 77 y siguientes de la Norma Foral General Tributaria de Álava.

**PARTE REGULADORA DE LA ORDENANZA**

CAPITULO 1
Disposiciones Generales.

**Artículo 12**.
El Cementerio Municipal, de Ibarra de Aramaio, como bien de servicio público de pertenencia del Ayuntamiento, queda sometido exclusivamente a la administración, cuidado y dirección de la Corporación Municipal en los términos que se indican en el presente Reglamento, sin perjuicio de las facultades que correspondan a la autoridad judicial y, en su caso, a las sanitarias.

Asimismo los cementerios de Barrios quedan sometidos a las indicaciones que en materia de enterramientos, aconsejen los técnicos municipales, dependiendo de cada caso, dada la particularidad, de cada cementerio, sin perjuicio de las facultades que correspondan a la autoridad judicial y, en su caso, a las sanitarias.

**Artículo 13**.

Udalaren zeregina izango da:

A) Hilerria zaintzea, garbitzea eta egokitzea.
B) Lurra banatzea eta ematea.
C) Zerga-ordenantza honen arabera ematen diren hilobi eskubideengatik tasak eta eskubideak kobratzea.
D) Zerbitzua behar bezala eskaintzeko behar diren langileak izendatzea.

**14. artikulua**.
Partikularrei honakoa dagokie:

A) Hilerrian era duinean ehortzia izateko eskubidea, arraza, erlijio eta herri desberdin izateagatik inolako diskriminaziorik gabe egin gabe.
B) Arautegi honen arabera hilobi-eskubideak eta bere erlijio edo ideologiaren erritoak aukeratu eta erabiltzea.
C) Zerga-ordenantzan adierazten diren zerbitzuen eskubideak edo tasak ordaintzea.
D) Hilerrietako Osasun Zaintzarako ezarritako arau guztiak errespetatzea eta betetzea.

**15. artikulua**
Ordenantza honetako ez den beste udal hilerri batean ehortziak izan nahi duten bizilagunek nahi hori bete ezin badute, bertan lekurik ez dagoelako edo higiene eta osasun aldetik baldintza egokiak betetzen dituelako edo abandonatuta dagoelako, udalak beste ehorzketa-leku bat zehaztu ahal izango du bizilagun horientzat.

Era berean, gorpua erretzea aukeratu eta errautsak lurperatu nahi dituztenentzako lekua ere zehaztu ahal izango du.

**16. artikulua**. Hilerriaren administrazio-kudeaketa Aramaioko udal korporazioaren zuzendaritzapean egingo da.

II. KAPITULUA
Hileta eskubidea

**17. artikulua.** Hileta-eskubidea -ehorzketa egingo deneko lursailaren erabilera edo gozamenagatik osatua- soilik eman ahal izango da bertan gorpuak edo gorpuzkinak ehorzteko, eta, beraz, ez zaio beste erabilerarik emango; udala izango da lursailaren jabe.

**18. artikulua**.
Hileta-eskubidea emango duena Aramaioko Udaleko alkate-lehendakaria izango da, edo, bestela, bere ordezkoa, hau da zerbitzu batzordeko lehendakaria.

Corresponderá al Ayuntamiento:

A) El cuidado, limpieza y acondicionamiento del cementerio.
B) La distribución y concesión del terreno.
C) La percepción de derechos y tasas que procedan conforme a la Ordenanza Fiscal por concesión de derechos funerarios.
D) El nombramiento del personal necesario para la correcta prestación del servicio.

**Artículo14.**
Corresponderá a los particulares:

A) El derecho a una inhumación digna en el cementerio, sin discriminación de raza, religión y patria.
B) Elegir y disfrutar, en los términos del presente Reglamento, de los derechos funerarios y de los ritos que correspondan a su religión o ideología.
C) Abonar los derechos o tasas que por la prestación de los distintos servicios se señalen en la Ordenanza Fiscal.
D) Respetar y cumplir cuantas disposiciones se dicten en orden a Policía Sanitaria Mortuoria.

**Artículo 15**
El Ayuntamiento podrá determinar el lugar de enterramiento para aquellos vecinos, cuyo deseo de ser enterrados en otro cementerio del municipio, que no sea el de la presente ordenanza, no sea posible por falta de espacio o razones higiénicas sanitarias, o estado de abandono del cementerio.

Así mismo, podrá determinar el lugar de enterramiento para aquellos vecinos que opten por la incineración, y deseen enterrar las cenizas.

**Artículo 16.** La gestión administrativa del cementerio se ejercerá bajo la dirección de la Corporación de Aramaio.

CAPITULO II
Del derecho funerario

**Artículo 17.** El derecho funerario, constituido por el uso o disfrute del suelo en que se realice el enterramiento, se entiende otorgado solamente para dar en ellos sepultura a cadáveres o restos humanos, sin que pueda dársele otro destino, reservándose el Ayuntamiento la propiedad del suelo.

**Artículo 18.**
El otorgamiento del derecho funerario corresponderá al señor Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Aramaio o por su delegación, al Presidente de la Comisión relativa a Servicios.

Zerbitzuak. Hileta-eskubidearen lizentziak ehorzketarako toki zehatza seinalatuko du hilerriaren lur-eremuan; lizentzia, hain zuzen, dagokion tasa aurretik ordaindu eta gero emango da.

**19. artikulua**.
Honako kasu hauetan iraungitzat joko da hileta-eskubidea eta, beraz, udalari itzuliko zaio:

A) Hileta-eskubidea emateko epea (10 urte) igaro bada.
B) Lurperatze eskubidea ordenantza honetan xedatutakoaren aurka erabiltzen denean.

Hileta-eskubidea iraungi ondoren eta udalak egoki baderitzo, gorpuzkinak hezurtegira eramango dira, hilarri orokorrean hildakoaren izena idatziko da eta hilarri pertsonala kendu egingo da; gastu guztiak udalak ordainduko ditu.

III. KAPITULUA
Hilobiak

**20. artikulua.**
a) Hilobiak ilaran jarriko dira, udalaren irizpenaren arabera.
b) Ehorzketak horizontalak izango dira eta ezingo dira, inolaz ere, 2 edo gorpu gehiago ehortzi hilobi berean, hileta-eskubidea indarrean dagoen bitartean.

**21. artikulua.**
Ez da beharrezkoa izango hilarriak jartzea.

Nolanahi ere, hilarririk jarri nahi duenak honakoari egokitu beharko zaio:

Hilarri mota:
Hilarriak hilobiaren goiburuan ezarriko dira eta eredu honetara egokituko dira:
A) Materiala: egun dagoen koloreko hareharria erabiliko da.
B) Forma eta neurria eranskinean zehaztutakoak izango dira. Barruan nahi dena idatziko da eta edozein letra mota erabili ahal izango da, baina hilarriaren neurrira egokituta.
C) Apaingarri gisa hilarriaren goialdean jarriko den marrazkia, bakoitzak nahi duena izango da.
D) Hilarriaren goialdean inkrustazioak egin ahal izango dira, beti ere 1 cm baino gehiago ateratzen ez bada. Ez da min fisikoa eragin dezakeen inkrustazio zorrotz edo ebakitzailerik onartuko.
E) Debekatuta dago artikulu honetan aurreikusita ez dagoen bestelako elementu apaingarri iraunkorrik (kateak, landareak, eta abar)

Servicios. La licencia del derecho funerario indicará el lugar exacto del enterramiento, dentro de la superficie del cementerio, y se concederá previo pago de la tasa correspondiente.

**Artículo 19.**
Se declarará la caducidad de un derecho funerario y en tal caso revertirá al Ayuntamiento, en los supuestos siguientes:
A) Por haber transcurrido el plazo de concesión del derecho funerario, cuya duración se establece en 10 años.
B) Por el uso del derecho funerario en contra de lo dispuesto en la presente Ordenanza.

Una vez caducado el derecho funerario y el Ayuntamiento lo estime oportuno, los restos serán trasladados al Osario, se inscribirá el nombre del difunto en la lápida general y se retirará la lápida personal, corriendo todos los gastos a cargo del Ayuntamiento.

CAPITULO III
De las sepulturas

**Artículo 20**.
a) Las sepulturas irán alineadas según dictamen del Ayuntamiento.
b) Los enterramientos serán horizontales y en ningún caso se enterrarán 2 o más cadáveres en la misma sepultura durante el periodo de vigencia del derecho funerario.

**Artículo 21.**
No será obligatoria la colocación de lápidas.

No obstante quien si desee su colocación deberá ajustarse a lo siguiente:

Tipo de lápidas:
Las lápidas se colocarán en el encabezamiento de la sepultura y se ajustarán al siguiente modelo:
A) Material: Serán de material de piedra arenisca del mismo color ya existente.
B) La forma y medida serán según anexo. El contenido y tipo de letra serán libres siempre que se ajusten al tamaño de la lápida.

C) El dibujo decorativo del elemento superior será de libre elección.

D) Se podrán hacer incrustaciones en el elemento superior de la lápida siempre y cuando no sobresalgan más de 1 cm. No se permitirán incrustaciones punzantes o cortantes que den motivo de riesgo de daño físico.
E) Queda prohibido colocar otros elementos ornamentales permanentes no previstos en este artículo (cadenas, plantaciones, etc.)

ezartzea.

IV. KAPITULUA
Ehorzketa, desehorzketa eta lekualdatzeak

**22. artikulua**. Gorpuak edo gorpuzkinak ehortzi, hilobitik atera eta lekuz aldatzeko indarrean dagoen Hilerrietako Osasun Zaintzarako arautegiak horren gainean dioena errespetatuko da.

**22.bis.artikulua**. Egutegia eta ordutegia.

1. Ehorzketa lanak egingo dira astelehenetik larunbatera (biak barne). Igande eta jai egun ofizialetan ez da ehorzketa lanik egingo, legezko salbuespen eta larrialdiko egoerek behartutako egoeretan izan ezik.

2. Ordutegiari dagokionez, urtea bi sasoitan banatuko da, uda (maiatzaren 1etik irailaren 30era) eta negua (urriaren 1etik apirilaren 30era). Udako sasoian, ehorzketa lanak beranduenez 19:30etan hasiko dira. Neguko sasoian, aldiz, ehorzketa lanak beranduenez 18:00etan hasiko dira.

V. KAPITULUA
Hileta-eskubidea eskualdatzea

**23. artikulua**. 6. Artikuluan araututako hileta-eskubideak ezingo dira kostubidez edo doan eskualdatu "intervivos" edo "mortis causa" egintzen bidez.

VI. KAPITULUA
Arau-hausteak eta zehapenak

**24. artikulua**. Guztiz debekatuta egongo da hilerrian edozein material edo objektu jartzea, ez bada aurretik udalak horretarako baimena eman duela.

**25. artikulua**. Alkateak 10 eguneko epean baimenik ez duten objektuak edo materialak kentzeko agindua emango du; agindua betetzen ez bada, berehala kenduko dira objektu eta material horiek, eta, gainera, arau-hausleei kargu hartuko zaie

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA.- Ordenantza honetan ez araututakoak indarrean dagoen Hilerrietako Osasun Zaintzarako arautegiak eta gainerako arauek xedatuko dituzte.

BIGARRENA.- Ordenantza hau behin betiko onartu eta gero, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean

CAPITULO IV
Inhumaciones, exhumaciones y traslados

**Artículo 22**. Las inhumaciones, exhumaciones y traslados de cadáveres o restos se regirán por las normas específicas del Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria vigente.

**Artículo 22.bis.** Calendario y horario

1. Los trabajos de entierro se realizarán de lunes a sábado, ambos inclusive. Los domingos y festivos oficiales no se realizarán trabajos de entierro, salvo en aquellos casos en los que la excepcionalidad legal y las situaciones de emergencia lo exijan.
2. En cuanto al horario, el año se dividirá en dos periodos, verano (del 1 de mayo al 30 de septiembre) e invierno (del 1 de octubre al 30 de abril). Durante la temporada estival, los trabajos de entierro comenzarán a las 19:30 horas como muy tarde. En la temporada de invierno, los enterramientos comenzarán a las 18:00 horas como muy tarde.

CAPITULO V
Transmisión del derecho funerario

**Artículo 23**. Los derechos funerarios regulados en el artículo 6 no podrán ser transmitidos de forma Onerosa o gratuita por actos "ínter vivos" o "mortis causa".

CAPITULO VI
Infracciones y Sanciones

**Artículo 24**. Queda terminantemente prohibida la colocación en las dependencias del cementerio de cualquier material u objeto, salvo existencia de previa autorización municipal.

**Artículo 25**. Por la Alcaldía se emitirá Orden para la retirada en el plazo de diez días naturales de aquellos objetos o elementos no auto-rizados, procediéndose en caso de incumplimiento a la retirada inmediata de los mismos con cargo a los infractores.

DISPOSICIONES ADICIONALES

PRIMERA.- En lo no previsto en la presente Ordenanza se estará a lo dispuesto en el Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria y demás normas en vigor.

SEGUNDA.- La presente Ordenanza comenzará a regir a partir del día siguiente de su publicación en el BOTHA tras su aprobación definitiva.

indarrean jarriko da.

**Eranskina**

Hilarriaren neurriak (cm)




TARIFA: Hilobiratzeagatik eta hilobia esleitzeagatik ordaindu beharreko tasa:

- Hilkutxa: 145,19 ú
- Errautsen ontzia: 56,54 úò

**Anexo**

Medidas de la estela en cm




TARIFA: Tasa por enterramiento y asignación de sepultura:

- Caja mortuoria: 145,19 ú
- Vasija con cenizas: 56,54 ú

| ALDAKETEN HISTORIALA | HISTORIAL DE MODIFICACIONES |
|---|---|
| OHARRA: Testu hau hasierako testuaren eta ondoren aipatzen diren aldaketen bertsio bateratua da. Bere helburua soilik informatzailea eta kontsultakoa da. Legezko baliodun testu bakarrak publikazio ofizialetan jasotakoak dira. | NOTA: El presente texto es una versión integrada de primer texto y de las modificaciones que se indican. Su publicación tiene finalidad exclusivamente informativa y de consulta. Los únicos textos considerados legalmente válidos son los que aparecen en las publicaciones oficiales |

| Udal Plenoan onartutako eguna / Fecha de aprobación en Pleno Municipal | ALHAOn argitaratutako eguna / Fecha publicación en BOTHA | Indarrean sartu den eguna / Fecha de entrada en vigor. | Aldatutako artikuluak / artículos modificados. |
|---|---|---|---|
| 2008/11/13 | 2008/12/24 | 2009/01/01 | Lehen onarpena. / Primera aprobación. |
| 2020/10/29 | 2020/12/23 | 2021/01/01 | - 22. bis.artikulua gehitu da / Se añade el artículo 22.bis.<br>- Eranskineko ñtarifaòren zenbatekoak aldatzea / Modificación en los importes de la ñtarifaòdel anexo. |